

ttüpi-ttapa

1994.eko ekainak 2 • 135. zenbakia


Elkarrizketa

**Elena Oiartzabal Goizuetako
dantza irakaslea**



**BORTZIRIETAKO
DYAK 10 URTE**

HERRIEN EUROPAREN ALDE



EUROPAN TINKO LANEAN

Eusko Alkartasunak Europako Herrietako nazionalistekin bat egin du aurreko legegintzalditik hona burutzen ari den lanari jarraipena emateko, ondoko helburu hauek lortzeki begira:

- ★ **Pertsonez gehiago arduratuko den Europa bat eratzea**, solidarioagoa eta mundu osora irekiagoa izango dena.
- ★ Lehenbailehen **GIZARTE EKINTZARAKO PROGRAMA** gauzatzea (50 milioi europar pobrezia larrian bizi dira, 17 milioik ez dute lanik eta 30 milioi etxerik gabe daude).
- ★ **Ingurugiro Politika** askoz ere zorrotzago bat burutzea, eguratsarekiko, lurzoruarekiko eta gai arriskutsuekiko kontrol gehiago duena.
- ★ **Europako Herrietako hizkuntza eta kultura guztiak** elkarrekin bizi eta garatu daitezela lortzea.
- ★ Ekintza eraginkorak burutzea **Europa zentralizatzaile** eta garrantasun gutxiko horretan, Herrien eta Eskualdeen partaidetza gehiago aitortu eta onar dadin.
- ★ 1996ko erreforman **Europa federalaren alde** lan egitea, funtzionamendu eraginkor eta demokratikoa ematen saiatuz, batasunaren oinarria herritarren eta herriengan egongo litzatekeelarik batipat.
- ★ **Fondoen eta Baliabideen funtzionamendua** hobetzea, nazionalitate eta eskualde guztietan aurrerabide-iturri berriak sor daitezen.
- ★ **Enplegua** ugaritu dadila **bultzatzea**, dagoen lana banatzen ere ahal-eginduz, eta Lanaren gaineko zergak murriztuz.
- ★ **Sektorekako Politiketan** finkatutako helburuak lortzea (Nekazaritza, Arrantza, Industria, Azpiegiturak, Hezkuntza eta Komunikabideak), lan horretan Eusko Alkartasuna Europako nazionalistekin batera ari delarik.

Europa zuzenago bat eraiki behar dugu, Herrien Europa bat, dagokigun Autodeterminazio eskubidea bideratuko duena, Europako Batasun Politikoaren barne Euskal Herriaren lurralde batasuna eta bere independentzia lor ditzagun.



eusko
alkartasuna

Europako Abertzaleekin

DATUAK.....

❖ *Goizuetako Umore Ona dantza taldeko neskatxei dantzak erakusteaz arduratzen ari da azkeneko ia hiru urte hauetan.*

❖ *Dantza taldea izen bereko elkartearen babespean sortu zen duela sei urte.*

❖ *Diru eskasia eta mutil gehiago ezin fitxatua dituzte problemarik latzenak.*

❖ *Halere 38 neska mutilez osatutako taldea dute lanean jo ta fuego.*

❖ *Urtean ateraldi dexente egiten duen dantza taldea da.*

Elena OIARTZABAL:

«Dantza talderako mutilak fitxatzea izugarri zaila da»

ZENBAT DANTZARIK OSATZEN DUTE UMORE ONA DANTZA TALDEA?

Denetara hogeita hemezortzi gaztetxo ditugu; horietatik 30 neskak dira eta horiei nik erakusten diet eta gainerako zortziak mutilak dira eta Patxi Iribarren dute monitorea.

ETA ADINARI DAGOKIONEZ?

Neskak gehiago direnez badugu denetarik, haundienak 15 urtekoak, baina mutikoak 8-10 urte bitartekoak dira. Hamabost urtez gorakoekin beti problemak izaten ditugu; ikastera joaten direla eta utzi egiten dute.

ZAGI DANTZAZ APARTE NOLAKO DANTZAK IKASTEN DITUZTE?

Gehien bat Bizkaiakoak eta Gipuzkoakoak beste bat edo beste. Musika aldetik ia denak txistua dute, eta orain Nafarroako dantzak ikasten hasi garenez, dultzaina ere badugu. Dena den beti problemak izaten ditugu bai txistulariekin eta baita dultzaineroekin ere. Azken aldiotan Lekunberriko mutil batekin hasiak gara ea fijo

hartzten dugun, baina tira...

HERRIKORIK EZ DUZUE EDO?

Bai, baina orain ikasten ari direnak dantzariak dira aldiberean.

DANTZA SAIO UGARI ESKAINTZEN OMEN DUZUE HORBARNA...

Hilabete honetan, adibidez, hiru ateraldi ditugu; lehenik Errenterira, gero Ereñozura eta ondotik Ordiziara. Dena dela urtero ez da berdina izaten. Iaz oso gutti izan genituen eta aurrekoan igoal hama-bi eta ni dantzan ibiltzen nintzen oraindik askoz ere gehiago; Bartzelonan, Mataron...

ETA ZEIN DA GUSTOKOEN DUTEN DANTZA?

Neska eta mutilak elkarrekin dantzatzea behintzat ez, batez ere

mutilak. Ez dakit lotsatiak diren edo... Igoal haunditzean ezin izanen ditugu separatu baina orain behintzat...

ZEIN DA DANTZA TALDEAREN PROBLEMARIK LATZENA?

Nire ustez diruarena eta mutil gutti izatearena. Dantza berriak ikasterakoan soineko berriak behar izaten dira eta horretarako dirua behar da, eta bestalde, badirudi mutilentzat dantzarena nesken kontu bezala ikusten dutela...



❖ *“Zerbait esatekotan, alde batetik mutilak dantza taldean parte hartzera animatu nahi nituzke eta bestetik laguntza gehiago baldin bada guretzat hobekiago”*

TESTUA

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Maiatzaren 22an bazkari batekin ospatu zuten Bortzirietako DYAk kideek beren 10. urtemuga. Hamar urtetan hainbat istripu ikusi dituzte eta horietako bakoitzean bere laguntza eskeini dute. DYA hizkien erranahia betetzen saiatu dira: Gelditu eta Lagundu. Ez da gutti, batez ere muxutruk ari direla kontutan hartzen badugu.

TESTUA
AITOR AROZENA
ARGAZKIAK
KARMELE TOLOSA



1993KO IRAILETIK AITZINERA EZINDUAK BERA KO 'UXANERA' ERAMATEKO ZERBITZUA MARTXAN PARATU DU BORTZIRIETAKO DYAK

BORTZIRIETAKO DYAK HAMAR URTE BETE DITU



BOLUNTARIOEN BEHARRA AZPIARRATU DUTE DYAKO KIDEEK

DYAk kideek hamar urteotan egindako lanaren laburpena jakinarazi berria dute. Anbulantzia-ekin 1.775 urgentzia ezberdinetara

agertu dira eta horietatik 1.625 pertsona eraman behar izan dituzte Gipuzkoa eta Nafarroako ospitaletara. Eraberean, 370 zerbitzu berezietan (zezenak, kirol probak...) egon dira eta Lesakako delegazioko botikinean 330 urgentzia atenditu dira, gehienak zauri arinak sendatuz (2. eta 3. graduako erredurak, ebaki ttikiak...). Erreskate ibilgailuak berriz, 63 trafiko istripuetan parte hartu du.

EZINDUAK 'UXANE'RA ERAMATEKO ZERBITZUA

Joan den urteko irailetik hasita, Bortzirietako DYAk ezindu fisiko eta psikikoak Berako 'Uxane' eskolara eramateko garraio zerbitzua martxan paratu zuen. Zerbitzu hau, Nafarroako Gobernu-ko Ongizate Sozialeko sailak emandako dirulaguntzari esker posible izan zen. Eraberean, Bortzirietako Gizarte Zerbitzu Mankomunitateak diruz laguntzen du. Gaur egun, DYAk ibilgailuak bortz pertsona eramaten ditu Uxanera, hiru Etxalartik eta bi Lesakatik. Zerbitzuaren urteroko aurrekontua 600.000 pezetatik ingurukoa da. Urteko aurrekontu osoa berriz, 1.500.000 pezetakoa da eta jasotzen dituzten diru laguntzak, Bera eta Lesakako udaletatik, bazkide laguntzaileetatik eta bertzelako jendearen emaitzetatik datoz.

ZAILTASUNEZ BETETAKO EGINKIZUNA

DYA erakundeak dituen zailtasunak aunitz dira, Zuzendaritza Batzordeko kideek erraten dutenez. Alde batetik, garrantzitsuena boluntario ari den jendearen berri-tzea izanzen litzateke. Momentuz, Lesakako delega-

zioan hamar lagun ari dira, gehienak asteen zehar lan egiten dutenak eta ezin dira urgentzia guztiak behar bezala atenditu. Bertze aldetik, zuzendaritzakoen ustez "behar beharrezkoa da delegazioaren barne lanen antolaketa eta funtzionamendurako pertsona bat. Pertsona horren betebeharra bazkide berriak lortzea, hitzaldiak ematea, anbulantziako sendagaiak ongi mantentzea, lehen laguntzako ikastaroak ematea edo Zerbitzu Sozialeko garraioaren antolakuntzaz arduratzea izanen zen".

PROFESIONALIZAZIOAREN BEHARRA

Urgentzia aunitz hil ala bizikoak izaten direla kontutan hartuz, profesionalizazioaren beharra azpimarratu du Jose Mari Irazoki, Bortzirietako DYako arduradunak: "berez ez luke DYA edo Gurutze Gorria bezalako erakunde-rik izan behar, horretan ari direnak profesionalak izan beharko zuten, baina bitartean lanean segituko dugu". Eta beraiek bezala, Doneztebeko DYakoak eta Elizondoko Gurutze Gorriko erreskate taldeak ere

HAMAR URTEKO LANA

TRAFIKO istripuak

382

KIROL istripuak

151

LAN istripuak

58

LAGUNTZAK

982

ETXEKO istripuak

42

ERREKAKO ist.

5

SUTEAK

5

Trasladorik ez

150

DATU ITURRIA: DYA-Bortziriak


1.775

Asistentzia
egin ditu
Bortzirietako
DYAk hamar
urteotan



ASISTENTZIAK

DATU ITURRIA: DYA-Bortziriak



* OHARRA: 1984ko maiatzetik abendura eta aurtengo urtariletik maiatza bitarteko asistentziak 1984an sartuak daude

«Boluntarioak garelako kontutan hartuz, DYAn aritzeko batez ere lanerako eta sakrifiziorako gogoia behar da»

■ Zein dira zuen helburuak eta premiarik larrienak?

□ Garraio urgenteak dituen beharrak betetzea da oinarriko helburua eta premiei dagokienez, haseratik bezala, boluntarioak eta diru-laguntza ekonomikoak behar ditugu.

■ Zuen eginkizuna betetzeko zer baliabide dituzue?

□ Larrialdietarako materialarekin guztiz osatua da goen anbulantzia, delegazioan kurak egiteko gela bat, erreskate ibilgailua eta orain berriki eskuratu dugun



Jose M. IRAZOKI
Bortzirietako DYako arduraduna

bertze ibilgailua, ezinduak dauden pertsonak garraiatzeko.

■ Eta boluntarioei dago kienez?

□ Gaur egun, batez ere zerbituetaz arduratzen diren 10 boluntario daude, bere posibilitateen arabera. Argi uler daitekeen bezala, 24 orduak betetzeko ez da nahikoa.

■ Zer behar da DYAn sartzeko?

□ Sakrifiziorako gogoia batez ere, eta bi hilabetez probetan ibili ondotik, lehen laguntzetako ikastaroa egin

edo anbulantziak gidatzeko karnetaren jabe izan.

■ Boluntarioak zaretela kontutan hartuz, Ordezko Zerbitzu Zibila egiteko objektoreak onartzen dituzuela kritikatu zaizue. Zer uste duzu horretaz?

□ Lehenik erran behar dugu, gure ustez bai DYA kasu honetan, baita zerbitzu militarra ere profesionalen osatutako lanbideak behar dutela izan. Baldintza hauek beteko balira, objektore eta intsumisioen arazoa ez zen gertatuko.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.800 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEKO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

Zuzendaria: Joxemanuel Iri-
goien. **Publizitatea:** Miren Kar-
mele Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-
tor Arozena, Joxemanuel Iri-
goien. **Erredakzio taldea:** Pe-
llo Apezetxea, Juainas Paul,
Kristina Boan, Bittori Telletxea.
Berriemaileak: Joseba Azpi-
roz, Esteban Arozena, Juana
Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria,
Iban Isasi, Txema Aldabe, Pello
Etzegia, Txema Urroz, Patxi
Otxandorena, Daniel Martirena,
Ixabel Maia, Josune Etxebeste,
Pablo Mendiburu, Joseba Iga-
rabide, Alizia Olaizola, Margari
Etxenike, Koro Irazola, Mixel
Gerendiain, Jacqueline, Marta
Iturria, Oskar Txoperena, Al-
berto Sansinena, Pello Apeze-
txea, Aitor Arozena, Kristina
Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE
Nafarroa, Patxi Lasa, Josetxo
Susperregi.

Inprimategia: Gertu (Oñati).
ttipi-ttapa ez du bere gain
hartzen derrigorrez, aldizkarian
adierazitako erranen eta eritzien
erantzukizunik

Erakunde Laguntzaileak:
Bera, Leitza, Goizueta, Areso,
Baztan, Urdazubi, Zugarramur-
di eta Sarako udalak, Bor-
tzirietako Euskara Mankomuni-
tatea, Malerrekako Zerbitzu
Mankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzaren
Kultura Saileko laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Azterketak

Bezperan irentsitakoa hurrengoan botatzea besterik ez da izaten



Arantxa HERAS
Irakaslea Lekarozen

Irakaslearen-
tzat, materia
ikastarazteko

eta ikasleak ikasitakoa neur-
tzeko modu bat da azterketa.
Hori bai, kontutan hartu be-
har da azterketa egoera
konkretu batean egiten dela
eta zoritxarrez, gehienetan,
bezperan irentsitakoa hu-
rrerangoan botatzea besterik ez
dela izaten. Eskola-frakasoari
buruz hitzegiten denean, az-
terketa gainditu ez dutenen
portzentaiak hartzen dira
kontutan. Gauzak horrela,
zehatzagoa da, beharbada,
hezkontza sistemaren
frakasoaz hitzegitea.

Guzti honetan, irakaslearen
papera azterketak prestatu
eta zuzentzeaz gain, beste
aspektu batzuk (jarraera kri-
tikoa, materiarekiko jarrera,
eguneroko lana...) beste
modu batean neurtu eta
kontutan hartzea da, edo hala
izan beharko luke.

Azterketa egun bateko kon-
tuta da eta irakaslearen zere-
ginik garrantzitsuena ikas-
learengan beste motibazio
batzuk lortzea da.

Ikaslearen lanaren zati bat neurtzen ahal dute, ez lan osoa



Amagoia SANSINENA
Elizondoko ikaslea

Gaur egun az-
terketek ikaske-
ta-formakun-

tzan oso paper erabakikorra
daukate, azterketen bidez
persona batek eginiko lana
baloratzen baita. Ni, honekin
ez nago ados, zeren badira
personak azterketa bezpe-
ran pila bat ikasiz azterketak
gainditzen dituztela eta ber-
tze batzuk berriz, nehez eta
ebaluaketan lan asko egin,
ez dituzte azterketak gaindi-
tzen. Azterketari zein gar-
rantzi eman irakaslearen
menpe dago, badaude ba-
tzuk azterketari soilik garrant-
zia ematen diotenak, eta
bertze batzuk berriz, klaseko
lana, etxekolanak... balora-
tu egiten dituzte, azterketa-
rekin batzuek beste bat egi-
nez. Bertzalde, azterketek
'eskola-frakaso' mugatzen
dute, azterketak gainditzen
ez badituzu kursoak erre-
pikatu behar dituzu eta ba-
tzuk ikasketak uzten dituzte.
Bukatzeko, nire ustez azter-
ketek ikasle batek eginiko
lanaren zati bat neurtzen ahal
dute baina ez lan osoa.

Normalean irakasleek azterketari begira erakusten digute



Garbiñe LEIZA
Unibertsitaria

Azterketen fun-
tzio bakarra
prueba bat

gainditzea eta titulu bat lor-
tzea da. Gehienetan azkene-
ko astean memorizatu posi-
ble izan duzuna neurtzen da
azterketan. Inportanteena
prueba hori pasatzea da,
egitan dakizuna edo ikasi
duzuna baliorik gabe geldi-
tzen delarik. Zentzu hone-
tan, eskola-frakaso sistema
edo irakaskuntz modelo ho-
nen ondorioa da, eta, noski,
azterketek harreman zuzena
dute frakaso honekin, bai-
nan prozesu luze baten on-
dorio bezala. Hortaz, norena
da eskola-frakaso, ikaslea-
rena edo sistemarena.
Irakaslea, sistema eta ikas-
learen arteko zubia da.
Salbuespenak badaude, bai-
nan normalean irakasleak ere
joku berean sartzen dira eta
azterketari begira erakusten
digute; eta honekin hautsi
nahi dutenek oztopo pila
izaten dituzte.

LEGARRA

• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

⇒ Fax Publikoa
⇒ Enkuadernazioak
⇒ Inprenta lanak • fotokopiak
⇒ **%25eko**

deskuentoa
diska, kasette eta liburuetan

Legarra 9, ☎ 637030 - LESAKA



CRISTALERIA VELATE

- Kristaleria orokorrean •
- Barnekaldeen dekorazioa •
- Bainurako mobleak eta manparak •
- Pareta ispiluak •
- Bidriera artistikoak •

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe

Villaba Etorbidea 12 - IRUÑEA ☎ 132021

Merkatarien karrika 5 - DONEZTEBE ☎ 450991

Pedro Axular 1 - ELIZONDO ☎ 580825

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO

Azterketak

Iñigo OLAETXEA

Bortzirietako Bertso Eskolakoak
Neurria: Hamarreko haundia

Berako EA & Company-ko kontzejal agurgarriak

Eskutitz hau ziegatik idazten dizuet. Herriko Etxean erakutsi duzuen portaerak asalatu nau arras eta TTIP-TTAPAK zabaltzen duefn leiho honetatik doakizue nere haserreare.

Presoen eskubideen alde agertu eta gero hara non eskubide horien aldeko mozioa gaitzestu duzuen. Bizue, etxetik urrun egotea, urteak eta urteak itogarria da, batez ere bere herria maite duen presoarentzat, zeren urruntasunak ia ez baitu herriko haize frexkoa sumatzen uzten. Hagitzez itogarriagoa da, baina, familia, neska eta lagunentzat, izan ere hauek baitira astero-astero milaka km. eginda, miloika pzt a xahututa, hamaika irain ankerrak jasanda, haize garbi pittin bat presoari ekartzen diotenak. Eta zuek hitzak arinki erabili bai, baina guzti hau zer den, jakin ere ez dakizue. Zuek ez zarete serio mintzatzen.

Laurok hain zintzo errespetatzen duzuen legedi horrek, presoak etxetik hurbil egon gaitzean eta bertze gauza politikak ere dakartze idatzia.

Paper errean idatzia tamaiez, eta antza, kearekin galduak gure eskubideok. Bertzela galdeiozue Lesakako Patriziori, edozein senideri... baina ez joan orain Etxarri-Aranatzeko lurpean datzan Peio Marinelarenarengana; hark ederki sumatu zituen legediaren du eta gar xamurrak. Ez niri erran 'todos los presos tienen derecho a...' 'asi como a solicitar y exigir...', ez baitakit farala negaregin. Roldán, Asunción, Atutxaren... legeak aspalditik dakizkigu nolakoak diren. Egia erranen dizuet ongi

OHARRA:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izendeiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttip-ttapak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

jabe zaitezten: sar nazazue Monterroson, Madrilen, Txinan edo Australian preso, berdin zait -barroteak berdin hotzak dira-, izan ere nik ez dut Euskal Herrian preso egotea nahi, librea baizik, Euskal Herri libre batean.

Baina lasai, inor ez dadila estutu; noizbait Euskal Herriaritzen bagaituzte -bagaituzue- arront kontent paratuko naiz nere hurbilekoek ez dutelako gorriak ikusi beharko niri haize frexkoa ekartzearen. Bestaldetik lasai zeren eta euskal preso guztiak bilduz gero nere 'eskubide indibidualak' ez dira arriskuan egonen, egiazki, ezagutu ditudan kideak baitira gartzela barruan eskubideok errespetatu dizkidaten pertsona bakarrak.

Akautzeko zera erran nahi nieke "Herriko Etxea ez dela toki aproposena 'gai' hauek ukitzeko" erraten duten zinegotziei: ausardia eta erantzunkizun urria erakusten dutela herritarren aitzinean.

Bertzerik gabe, agur bat eta hurrengorarte.

JOSE LUIS ETXEBERRIA LEKUONA
EUSKAL PRESOKO POLITIKOA
ENA. - 72.668.789

Nabiko(a) azterketa bada ere eguneroko bizia orain ikasleen komeriak datoz "urteroko minbizia" etorkizuna landu asmotan badu bere garrantzia ta txuletairen irtenbidea dagonez zabaltzen basia aprobatzeko truko onena "lehendik ongi ikasia".

Suspenditzeak berekin dakar ikaslearen negarra alferkerian ondorioa da frakaso eskolarra ta udan zehar ikastea da du(e)n irtenbide bakarra aholku gisa orain ikasi bestela hau zoritxarra negu osoa ikasten pasata udan ikasi beharra.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA


LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



LESAKA



Diario de Noticias 94-V-21

Ekainaren 18an bilduko dira Oiartzunen **Retegi** abizena duten gizon eta emakumeak. Meza-
ren ondotik Gurutze Berri jatetxean bazkaria izanen dute. Abizena noraino zabaltzen den jakitea da beraien intentzioa.

Diario de Noticias 94-V-13

«Herri kirol talde aunitz herri ttikietako jendearekin ari dira eta batek edo ber-
tzeak uzten badu taldea desagertzen da. Hori gertatu da aurten Sunbillare-
kin».

Jose Luis RETEGI
H. Kirol federazioko
lehendakaria
Diario de Navarra 94-V-14

◆ Ongi konpontzen al zara zaintzen dituzun zaharrekin?

❖ Arazo batzuk izan nituen hasieran baina orain oso ongi.

◆ Lanean gutxien gustatzen zaizuna?

❖ Lan honen arlo guztiak oso gustoko ditut.

◆ Bihotza nola alaitzen zaizu?

❖ Hitz goxoekin.

◆ Zenbat aldiz maitemindu zara?

❖ Askotan nabaritu dut sentimendu hori.

◆ Gizon ideala?

❖ Fisikoa ez zait gehiegi inporta, begiek ezik. Sintzeroa eta gozoa izan dadila.

◆ Ongi 'preparatua' edo zaren bezalakoa?

❖ Naizen bezalakoa, baina 'toke' batekin.

◆ Soldaduska egingo zenuke?

❖ Ez, intsumisioa izanen nintzateke.

◆ Bertsolari bat?

❖ Andoni Egaña.

◆ Corin Tellado edo Bernardo Atxaga?

❖ Bernardo Atxaga.

◆ Eroso sentitzen al zara elkarteko komisiotan?

❖ Bai, uste dut gainera mimatu egiten nautela komisioko kideek.

◆ Matxismorik sumatu duzu Umore Onan?

❖ Lehen beharbada bai, baina uste dut hori gainditu dela.



M^a Jose AIZPURI

Goizuetako Famili langilea eta Umore Onako komisiokoa



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

SAROB

okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



© 631076 • BERA

MOLINERO

PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak molda-
tuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar
dituzun pintura plastikoen arabera prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

zimeldi

ALTZARIGILEA

▲ Kolorea gustatzen zaizu? sar-
ezazu kolore pixka bat zure
etxean altzari tintatuak egiten
ditut

Deitu eta neurriak hartuko dizkizut

© 387017 • ETXALAR

LESAKAKO
ZUBIA

N-121-A

ZUMELDI

ETXALARKO
BENTA



Altzateko bestak asteburu honetan


Larunbatean, 'Altzateko Jaun' antzeslana estreinatuko da Kultur Etxean

KRISTINA BOAN

Asteburu honetan Altzateko bestak ospatuko dira hirugarren aldiz. Larunbatean arratsaldeko 3,30etan hasiera emanen zaie Tiro txapelketarekin. Ondotik, Nafarroa Oinezek antolatua, Xerox-Getxo eta 'Mont de Marsan' rugby taldeek partidua jokatuko dute. Honekin batera eta aurtengo bertze nobedadea, Kultur Etxean estreinatuko den 'Altzateko Jaun' antzeslana izanen dugu. Berako 'Lamixine B.A.T.' antzerki taldeak, lan honekin bere lehengo agerraldia egingen du.

Egun horretan, musika, dantzariak eta bertze hainbertze gauza izanen da ilunabarrean, 'III. Milia Popularra' ahanzi gabe.

Igandean Herri Bazkaria eguerdiko 2,30etan hasiko da eta segituan, Nafarroa Oinezek antolatutako ar-



Peña Ratan, eskalatzen ikasteko oinarritzko leku bat paratu da. Materiala Nafarroako Mendi Federazioak paratu du eta zortzi bide ezberdin egin dira, guztiak 4. eta 5. gradukoak (oinarritzkoak)

tisauen erakusketa egonen da ikusgai karrikan. Zazpitan herri kirol saio bikaina izanen da frontoian, hau ere Nafarroa Oinezek antolatua.

Arratsean, txaranga eta suzko zezenarekin akautuko dira aurtengo Alzateko bestak.

Sokafirako neskak Nafarroako Txapelketan

Euskadiko Txapelketan hirugarren gelditu ondotik, Nafarroakoan parte hartzea gelditzen zaie denboraldia akautzeko. Birtarte honetan zenbait

neskak taldea utzi du. Taldea kanpoko jendareekin osatu da, Txantreako bi neskekin. Hori dela eta, berriz ere entrenatzen hasiak dira.

ttipi-flash

Gure Txokoa

Aurtengo denboraldia nahi bezala joan ez bazaie ere, mailari eustea lortu dute.

'I. Uxane Boccia eta Milia'

Ekainaren 11n burutuko da Beran. Bertan Hego Euskal Herriko eta Errioxako ezinduek parte hartuko dute.

Taun-Taun

Bergarako antzerki taldearen emanaldia izanen da ekainaren 11an, arratseko 8,30etatik aitzinera Kultur Etxean.


Miloi erdiko

dirulaguntza eman dio udalak Club Ciclista Beratarrari Euskadiko Itzuliko etapa bukaerako gastuak ordaintzen laguntzeko.

Angel Ponbar

izanen da aurtengo udan udal igerilekuen arduraduna. Pizsinak garbi mantentzeaz gain, ostutuko zerbitzua ere berak eramanen du. Bere lan eskaintza izan zen hoberena, 908.000 pezeta ko-bratuko baitu.

BOAN TAILERRA



KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Alzate 28 - BERA



Legia 11 - 63 06 64 BERA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

Errekalde ostatua

Ortizraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



la 3 milioi banatuko ditu udalak kirol eta kultur ekitaldietarako

Akordeolari taldeak lehen saria eskuratu du Parisen

AITOR AROZENA

2.918.688 pezeta banatuko ditu aurten udalak elkarte ezberdinen artean, kirol eta kultur ekitaldiak antolatzeagatik.

Azken udal batzarran erabakitakoaren arabera, kirol ekitaldietarako 1.640.000 pezeta emanen dira. Gehiena, Beti Gazte elkartera joanen da (1.250.000 pezeta), 290.000 pzta. Arkupe elkartearentzat eta 100.000 jubilatuentzat.

Kultur ekitaldietarako berriz, 554.688 pzta jasoko ditu musika



Ekhiñe Etxepeteleku OHOn eta **Xabier Silveira** 14 eta 18 urte artekoetan dira Nafarroako bertsolari txapeldun berriak, bapateko saioan

bandak, 240.000 abesbatzak, 234.000 txistulari bandak eta 100.000 akordeolari taldeak. Irain eskolako Guraso elkarteak 150.000 pezeta jasoko ditu errege



kabalgata antolatzearen alde.

Bertzalde, Salvador Madariaga zuzentzen duen akordeolari taldeak 1. saria eskuratu du Pariseko lehiaketan.

Jubilatuaren Eguna hilaren 10ean

Goizetik txistulari beteranoak karrikaz karrika ibiliko dira eta ondotik mezara joanen dira. Plaza zaharrean Lizarrako musika bandaren emanaldia izanen da eta aurrekua dantzatuko zaie Urrezko Ezteiak bete dituzten lesakarrei. Frontoiko bazkalondoan, omenaldia, Nagore anaiak eta Izarra orkestarekin dantzaldia. Txartelak ekainaren 6a baino lehen hartu behar dira CANen bulegoetan.

ttipi-flash

Andoni Sarasola

eta intsumisioaren aldeko mozioa ez zen onartu azken udalbatzarrean, PNVk kontra botatu ondotik. Epaiketa joan den astelehenean egin zen. Andonik euskaraz deklaratu nahi zuen baina itzultzailerik ez zegoenez, bere hortan epaiaren zain gelditu da.

Dantza taldeak

martxan hasiak dira. Tantirumairukoak maiatzaren 22an Faltzesko Dantzari Tiki egunean izan ziren eta Irainekoak 29an Lezokoan. Hauek Bergarara joatekoak dira ekainaren 12an.



Beti Gazte taldeak Tolosan berdindu ondotik Preferentera bueltatzea lortu du. Igande honetan Lesakan jokaturako azken partidua besta bat izan da. Argazkia Tolosan ateria da, igoera lortutakoan jokalariek bertara hurbildutako jarraitzaileekin batera egindakoa.

Arg.: J.E. del RIO

EROSLE

LESACA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264



BAZTAN BIDASOXB

LANGILE
ABERTZALEEN
BATZORDEAK

Errotazar 5, behea
31780 BERA

Tlfnoa. 63 06 70
Faxa. 63 06 70

LANGILERIAREN **INDARRA!!**

KOXKILA
OSTATUA

Larunbatetan
mus txapelketak
sari ederrekin

Zarandia 4 - LESACA

Ettxalar...

Kultur Egunak ekainaren 12an eta 19an

Gasna Feria eta Kaxiano lehen igandeko protagonistak

PELLO ETA ALBERTO

Hurbil ditugu Altxata Elkarteak antolatutako kultur egunak, berriz ere. Dena den, ongi errateko, Landa-gain Eskola eta Udala bera ere antolatzaile eta laguntzaile artean sartu beharrean gaude. Hain arrakasta haundia izan duen gasna lehiaketa eta salmentak aintzinerapausoa emanen du aurten. Eskularen erakusketa ere ikusi ahal izanen dugu. Gero Kaxianoren soinu eta kantu atsegingarriaz gozatzeko aukera. Hori guzia ekainaren 12an. Ondoko igandean, berriz, 19an, Haurren Egunak Ipuin Lehiaketa izanen du gai nagusia, sari banaketarekin etabar.



Jubilatuak ederki pasatu zuten dantzariei begira

Argazkia: PELLO

Udalaren urteko kultur ekintzak

370.000 pezeta gastatuko dira urte honetarako Udalak antolatutako kultur ekintzetan. Horien % 65 Nafarroako Gobernuak

ordainduko du, 'Arte eta Kultura' izeneko programaren bidez; % 35 geldituko zaio Udalari herriko dirutik pagatzeko. Ekintza

horien artean sartzen da apirilean Iruñetik etorritako antzerki taldearen emanaldia, baita ekainaren 12ko Kaxianoren kantaldia ere.

Geroago egingen direnak oraindik arrunt xehetu gabeak egonagatik, akordeoi kontzerturen bat antolatze-ko asmotan dabilta.

ttipi-flash

Igerilekuko lana

Ana Iribarren eta Arantxa Perugorriak egingen dute udan. Bortz eskakizunen artean, euren zen herritarrek egin duten bakarra, Udalak onartu duena.

Ekainaren 12ko

hauteskunde europarretarako mahaia honako hauek osatuko dute: Imanol Iturria, Ixaka Cruz eta Eustakio Iparagirrek.

Gorosurretako

Esteban Irisarrik ere Albertoren gisako saria jaso du, Ingalaterrara ingelesa ikastera joateko aukera izanen baitu Nafarroako Gobernuaren kontura.



bitxikeriak • opariak • eskulangintza

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

ALBARTETXEA JATETXEA

HARAGI ETA ARRAINETAN
ESPEZIALIZATUA

Erreserbak egiteko deitu 627637 Ora

Antoiu 26 • LESAKA

ORDOKI

ALTZARIATIK

Estilo guztietako mobleak

ERAKUSKETAK:

Bitiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat
arratsaldetan
zabalik



Adintuentzat hiru etxebizitza eta aparkaleku bat egin asmoa du udalak

Adintuak besta batekin akautuko dute aurtengo gimnasi ikastaroa

OSKAR TXOPERENA

Eginkizun haundi xamarra dauka momentu honetan udalak eskuartearen: Beren gisara moldatzen ahal diren adinekoentzat

hiru etxebizitza eraikitzea, udalaren promozioaren bitartez bertze zenbait etxebizitza ere eraikitzea eta bide batez, herriarentzat aparkalekua egitea. % 80ko laguntza dute adinekoen etxebizitzak, da-

goeneko onartua baitaigo. Gainerakoentzat ez dago oraindik proiekturik. Guzti hau aitzinera ateratzeko zenbait lur eremu aztertzen ari dira eta beren jabeekin elkarrizketak ere hasiak omen dituzte.

Adinekoen gimnasi ikastaroa akautu da

Akautu da aurtengoz adinekoen gimnasi ikastaroa. Koadrilla polita bildu da negu eta udaberrian barna asteartero, hezurak mugiaraztera. Ez dute halere, besta ttiki bat egin gabe akautu nahi eta ekainaren 8an Bertizera joan behar dute Arantza eta Berako gimnasi taldeekin batera. Eguraldi ederra eginez gero, zenbait jokutan ari eta bertan bazkalduko omen dute

eta bertzela, berriz, Doneztebera bilduko omen dira. Heldu den urtean berriz.

Bentako zubi zaharra berrituko dute

Lehengo egunean Bentan zubi berri bat egiteko posibilitatea aipatzen bagenuen, dagoeneko zaharra moldatuko dela ziurtatzeko moduan gaude, proiektua onartu egin baita. Hurrengoan xe-

hetasun gehiago ematea agintzen dugu.

Hauteskunde mahaiaren konposaketa

Ekainaren 12ko hauteskunde europarretarako botua ematera joaten bazarete, hiru neska gazte arrautuko dituzue mahaiaren:

Esperanza Iguzkia-girre Eltzaurdia izanen da lehendakaria eta Tere Txoperena eta Idoia Urtzegik beteko dute bokalaren lana.



San Isidro biharamonean elkartu ziren Igantzi eta ospatzera. Tradizio bihurtzen ari den besta Igantzi

XATURETXEA



JATETXEA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

KOXXKONTA



Sagardotegia zabalik

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

ALBAITERITZA KONTSULTA

Julio Salinas Doktorea

- Kontsulta Orokorra
- Txertoak
- Parasitoez garbitzea
- Kirurgia
- MIKROTXIP bidezko identifikazioa

ORDUTEGIA:

Astelehen-asteazken-ortziraletan
4,30etatik 6,30etara

HELBIDEA:

Txokoberri etxea - Otsango auzoa
© 637351 • LESAKA



Auzolan orduak betetzea nahitaezkoa izanen da

Seigarren aldiz abisatu eta agertzen ez denari kobratu egingen dio udalak hemendik aitzinera



goitamar nekazari, beren zaindariaren besta ten

Argazkiak: OSKAR

MARTA ITURRIA

Herriko arauen arabera, auzolana egin behar da eta egingen ez duenari udalak kobratu egingen dio hemendik aitzinera, azken batzurrean erabakitakoaren arabera.

Ez da onartuko auzolana bezala, bakoitzak bere gisara egingen duen lana, hau da: udalak eta auzo bakoitzean lan horretarako izendatuak daudenak erabakiko dute egin beharreko lana noiz eta nola egin.

Seigarren aldiz auzolanerako abisatu eta agertzen ez den guziri kobratu egingen zaio, legeak agintzen duen dirutza. Erabaki hauek, auzolana seriotasun guttiegin hartzen de-

lako hartu ditu udalak. Tokatzen zaien egunetan beraien lana egingen ez dutenak ba omen daude eta badirudi, zuzentasuna eta berdintasuna izateko, biderik egokiena hau izan daitekeela. Horrela uste dute behinpein udaleko ordezkariak.

Futbito taldea final laurdenetan

Futbito taldeak Noainen kontra Arantzán jokatuak partidua 8 eta 4ko emaitzaz irabazi zuen, honela final laurdenetan sartuz. Joxe Ramon Amoros irakasleak entrenatzen dituen mutilak gogoz prestatzen ari dira partidu honetarako. Ea hurrengoan finalerdietan dauden.

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

BEREAU
jatetxea
Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 - LESAKA



SASKI
OSTATUA
LESAKA

ARRANO

OSTATUA
Legarrea - LESAKA


HERRIKO
OSTATUA
ETXALAR
JATETXEA
Dagoeneko zabalik dago Etxalarko plazan, ostatu eta jatetxe berria
© 635290 • ETXALAR

EKAITZA
OSTATUA
Goizeko 10etan irekia
asteleheneretik ortziralerako
Altzate - BERA



Hemeretzi gaztek jaso zuten konfirmazioa maiatzaren 22an

Bertzalde, telebista kate pribatuak hartzeko antenen argi indarra haize errota baten bidez lortzen da orain

IXABEL ETA JOSUNE

Maiatzaren 22an, Sunbilla 19 neska-mutilek egin zuten konfirmazioa. Arratsaldeko 7etan izan zen meza, ondotik apezak berendu bat eskeini zien eta eguna ongi bukatzeko, gurasoei afaltzera joan ziren. Afarian ere giro onik ez omen zen faltatu, berrogei bat lagun elkartu baitziren.

Mitina

Europako hauteskundeak direla eta, ortziral honeterako (ekainaren 3a) mitin bat antolatu du Sunbilla Herri Batasunak.

Gaueko 10etan izanen da Herriko Ostatuan eta bertara hizlari bat etorriko da. Ondotik afaria ere izanen



Konfirmazioa egin zuten hemeretzi gazteak

omen da.

❖ **Maiatzaren 26an**, Langarra euskara taldeak antolatutako bi-daiaren ostean "Kuba bizikletaz" izeneko

diapositiba emanaldia ikusteko aukera izan zen.

❖ **Zubizargaina** eta Ermitagoiako pisten proiektua Juan Carlos

Zamora ingeniariak egingen du.

❖ **15.000** pezetako dirulaguntza eman dio udalak Kanboko Xalbador ikastolari.

Alkate

eta zinegotziei dagozkien soldatak agertzen ziren azkeneko alean. Sunbilla kasuan, datu batzuk gaizki zeuden. Hona hemen zuzenak. Alkateak, urteko 130.000 pezetak, alkate-ordeak 110.000 eta zinegotzi bakoitzak 90.000.

Jesus Ibarra

izanen da hemendik antzinera ere herriko bake epailea. Ordezkoa berriz, Juan Antonio Ibarra izanen da.

15.000

pezetako dirulaguntza eman du udalak 'Kilometroak' besterako. DYA erakundeak berriz ez du subentziorik jaso.

EPI TELLETXEA
IGELTSEROA

Amezti Berri • Tfnoa: 450749 - 450751
DONEZTEBE



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- ☐ Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxatu ezazu.

1. kalitateko koltxoia oso prezio interesgarrietan

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**



Bertizarana eta Donezteberako ez da udal idazkari bakarra izanen

Honela eskatzen zuen Bertizaranako udalak

TXEMA ETA KARMELO

Doneztebe eta Elgorriako udal administrazio lanak egiten dituen idazkariak ez ditu Bertizaranakoak ere egin beharko. Iritzi horretakoa da behinpin Doneztebeko udala eta honela adierazi dio Nafarroako Gobernua-ri. Eskaria Bertizaranako udalak egin zuen, baina Doneztebe-koaren ustez, orain arte bezala idazkariaren dedikazio eskusiboa behar beharrezkoa da.

Kontutan hartu behar da idazkari honek, Elgorriaga eta Doneztebeko udal lanetaz gain, Bidasoa-Berroaran eta Kokoriko mendi elkartearen idazkari lana betetzen duela.



Aparango kamioi aparkalekua inauguratu zen

Argazkia: KARMELE

Adjudikazioen tasen igoera onetsia

Ajudikazioen tasen igoera onetsi zuen udalak heldu den urterako. Orain arte edozein lan edo obra egin aitzinetik,

udalari aurrekontu osoaren %2,5 ordaintzen bazen ere, hilbeltzaren laz geroztik %2,75 ordaindu behar-

ko da. Zabala zinegotzia izan zen erabakia- ren kontra azaldu zen bakarra, igoera gehie- gizkoa delakoan.

ttipi-flash

Arar subsidiarioen aldaketa

Aparan aldean da- goen 'unidad SU- 11' zatiaren erabil- pena industrial izan dadila onartu zuen udalak hasiera ba- tean, Antonio Apeztegiak eta Ra- fael Mezkirizek es- katuta. Hilabeteko epea du nornahik alegazioak egiteko.

Liburudenda

berri bat daukagu Karrika nagusian eta abudo xamar kafetegi-goxotegi bat ere izanen dugu Merkatu karrikan.

Erremontelari

onenen txapelketan parte hartzen ari dira Koteto Ezku- rra eta Patxi Etxe- berria donezteba- rarak. Beraiekin ba- tera, Lekunberri- Elizalde, Altuna- Agerre eta Matxin- Aizpuru bikoteek parte hartzen dute.

Mari Cruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



SANTAMARIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN
zure esku gaituzu.

ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404

PICABEA
BOUTIQUE

Udaberri eta udarako moda
Emakume eta gizonezkoarendako

Karrika Nagusia 5, elizaren ondoan • Tfnoak: 450207 eta 450151
DONEZTEBE



115 milioi pezetakoa izanen da aurtengo udal aurrekontua

Bertzalde, jende aunitz joan zen Mendaurrera Trinitate Egunean

IBAN ISASI

Iturengo udalak 115.828.793 pezetako aurrekontua izanen du aurtengo ejerziorako.

Ia 116 milioi hauen barnean irteerarik garantzitsuenak hurrengoak dira: tentsio altuko instalazioaren berritzea 3 milioi, elizarako bidearen argiteria milioi t'erdi, plazaren urbanizatzea 11 milioi, elizako kapillaren moldatzea eta berritzea 15 milioi, karriken urbanizatzea edo zoru moldaketa 8 milioi, Aurtiz auzotik elizaraino doaie bidearen asfaltatzea 1,25 milioi, belagien hobetzea milioi t'erdi eta baso pisten pabimentazio lanak, 40 milioi.



Hainbat jende joan zen Mendaurrera Trinitate egunean

Artxiboa

Trinitate Eguna maiatzaren 29an

Maiatzaren 29an Trinitate Eguna burutu zen. Urtero bezala Mendaurreraino ibilaldia egin ondotik, bertan meza aditzeko aukera

izan zen, bazkaria urtegi inguruan eta azkenik arratsalde, besta giroarekin segitzeko dantzaldia herriko plazan. Erromeria giro

polita izan zen ermita inguruan eta ez zen noski, akordeoi soinuak faltatu. Inguruko herrietatik jende paraxta bat etorri zen.

'Bidaieen Astea' Langarrak antolatzen

Uda gainean dugula eta Langarrak, Malekako Euskara taldeak joan den astean zenbait ekitaldi antolatu zituen, nolabait bidaiatzeko aukera ezberdinak eman nahian.

Honela Iturenen Maldivas irltako urpeko irudiak eman ziztuzten, Zubietan Himalayako Thalai Sagar mendiaren eskaladakoak, Sunbilla Kuba bizikletaz eta Donezteben mahai-inguru bat egin zen, 'Udarako aukerak' izenburupean. Bertan, BKZ, Maldaerreka, S.L. eta Erro Bidaiek izan ziren.



AMEZTIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Ameztia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

ZURE GORPUTZA ZURE ALTXORRA DA

Aukeratu zure neurria. Hobetu zure figura.

Zentru mediko-estetikoa

- Jean Paul Bouchet Doktorea (faculté de Medicine de Paris)
- Amaya Picabea (estetikan diplomaturia)

Behar duzun laguntza eskeintzen dizugu, pertsonalizatutako programei esker

Gainera:

- Aurpegirako tratamenduak
- Depilazio elektrikoa eta argizariarekin
- Azken nobedadea: ZELULA FRESKOEN aplikazioa

LEHENDABIZIKO KONTSULTA DOHAIN

INFORMAZIO GEHIAGORAKO



Lurrindenda • Apaindegia

Ameztia karrika z/g
© 450163 • DONEZTEBE



Golbai pistaren kontrako ibilaldia maiatzaren 15ean burutu zen

Eskualdeko mendi eta ingurugiro taldeekin batera, Iruñeko zenbait talde ekologistetako kideek ere parte hartu zuten

PELLO ETXEGIA

Aitzineko alean aipatu genuen bezala, Golbai pistaren eraikuntzaren aurka antolatutako mendi ibilbidea maiatzaren 15ean burutu zen.

Jakina den bezala, Donamariako Pistaren Aurkako taldearekin batera, Berako Larun eta Agerra mendi taldeak eta Lainope ingurugiro taldea, Errekako mendizaleak eta Baztango mendigoizaleak antolatu zuten mendi ibilaldi hau. Venta Quemada inguruan larogei bat lagun elkartu ziren, Iruñeko Gorosti, Eguzki eta Anat-Laneko partaide batzuk agertu zirelarik. Ibilbide honetan,



Mendi ibilaldian parte hartu zutenak Txarutako bordaren aitzinean

pistaren nondik norakoa egin zen, Txarutara eguerdi aldera ailegatuz. Bertan bilerratto egin zen, hu-

rrengo pausuak zein izan daitezken aipatzeko. Itoizen aurkako manifestazioan pista honi buruzko informa-

zioa banatzea eta maiatzaren 28an burutu behar zen mobilizaziorako deialdia egitea erabaki zen. Mobiliza-

zio hau, arestian aipatutako talde guztiek konbokatu zuten eta Gaztelu enparantzatik Diputaziora joan zen, Golbai pista ez egitea eskatuz.

Plaza estaltzeko lanak

Bertzalde, Donamariako Herriko plaza estaltzeko lanekin hasia da Goienetxe eraikuntza enpresa. Hasiera batean afera honek ere istiluak sortu bazituen ere —estaltzearen ondorioz laxoa plaza bat galduko baita—, dagoeneko hama-bortzen bat egun darma-zkitez lanean. Herriko Etxetik erran dutenez, Donamariako bestetarako akitzea espero da.

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZA LABAIEN

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA

ttipi-ttapa

5.700 harpidedun
20.000 irakurle



AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

Angel Manuel Belio

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMIÑENEA Etxea

San Andres karrika, 40 - NARBARTE

☎ 943 - 61 50 55



INAKI ITURRIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Instalazio zaharren berritzeak

PORTERO AUTOMATIKOAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
☎ 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
☎ (943) 61 24 24
20300 IRUN



Denboraldi paregabea Umore Ona futbol-sala taldearena

Gipuzkoako bigarren mailara igotzea lortu du

ESTEBAN AROZENA

Inork espero ez zuen arrakasta izan du futbol-salako Umore Ona taldearen lehen denboraldiak, Gipuzkoako 3. mailan egindako hirugarren postuarekin, bigarren dibisiorako txartela eskuratua baitu dagoeneko.

Jokatutako 30 partidetatik 20 irabazi ditu Umore Onak, berdinduak 4 eta galduak 6 izan direlarik. Maila honetan publikoaren presentzia haundiegia izaten ez bada ere, azkeneko partiduan 150 lagun inguru elkartu ziren frontoian.

Futbol-salaz ari garen ezin da aipatu gabe utzi, maiatzaren



Arg.: Xabier Mikel

Umore Ona futbol-sala taldea ederki aritu da bere lehen urtean

21ean jokatu zela herriko torneoaren finala. Partiduak ez zuen kolorerik izan eta azkenean 7-1ko emaitzaz nagusitu zitzaion

Urrutinea Goiko-itturri taldeari.

❖ **Nafarroako** Eskolarteko Bertso txapelketan, eta gure zonaldeari dagokio-

nean, bertso idatzietan maila guzietan lehen postuetan sailkatu dira herriko haurrak. Bakoitzen kurtsoa kontutan harturik, Izaro

Goikoetxeak, Ibai Zubirik eta Olaia Lekunak lehen postua lortu zuten. Igor Apezetxea, Saioa Alegria, Fernando Goia eta Eneritz Arozena bigarrenak izan ziren. Bapateko jardunean, Eneritz Arozena suertatu zen txapeldun, Ainhoa Ansa hirugarren gelditu zelarik. Sari banaketa Leitza izan zen maiatzaren 17an.

❖ **Maiatzaz** geroztik aldaketa batzuk izan dira udaletxeko ordutegian, eta langileak lehengo ordu berean sartzen eta ateratzen badira ere, herritarrei 9,30etatik 1,30etara mugatu zaie bertara agertzeko ordua.



Santa Kruzerako ibilaldia maiatzaren 15ean egin zen

Ardoa, ogia eta gazta banatu zen bertan

JUANA M^{re} SAIZAR

Beste urte bat gehiagoz Santa Kruzerako ibilaldia burutu zen, maiatzaren 15ean eta 80 lagun 'Via crucis' eginez iritsi ziren ermitara. Aurtenegonaldiak egiteko gurutze berri batzuek zeuden bidean, bide hori ez baita gure arbasoek ibiltzen zutena, berria baizik. Meza motza eta alaia izan zen eta bukatzeko, ohitura den bezala, ardoa, ogia eta gazta banatu zen.



Bautista Eraso eta Patxi Zubillaga izan dira Pake-Toki elkarteko txapelketako irabazleak

Arg.: Juana Mari

ttipi-flash

❖ **Ehiza kotoa** gestionatzeko Azpiroz, Gorriti eta Aresoko udalak elkartu dira. 2.000 hektarea dituzte hiruen artea, legeak agintzen duen minimoa.

❖ **Hilabeteko** laugarren egunetan atera behar dira elektrogailuak eta bestelako tresnak, zaborren kamioiak bildu ditzan.

❖ **Junta Pastoral** berria egin da. Katekesiko arduradunak Kari eta Estitxu, liturgia Txaro eta Juana Mari, Cáritasekoak Axun eta Eleni eta obratokoak Miguel Mari.



Administrari laguntzailea kontratatuko da 6 hilabeterako

Interesatuak, ostirala baino lehenago aurkeztu beharko bere eskaria udal bulegoetan

JOSEBA AZPIROZ

Udalak, 6 hilabete-rako administrari la-guntzaile baten kontra-tazioa onartu zuen. Kontratatu den per-sonak hiru ordutegia egi-nen du lan eta bere eginkizun nagusia tes-tuak euskaratzea izanen da. Proban aurkezteko 18 urte beteak eta Lanbide Eskolako le-hen gradua edo balio-kide den beste titulobat izan beharko da.



Etxe argazkien erakusketara jende asko hurbildu zen. Lehiaketan berriz, Mapi Canfranca izan zen saritua

Argazkiak: Joseba

Mailegua

Banco de Crédito Local bankuari 137.295.838 peze-tako mailegu bat es-katu dio udalak, gaur egun indarrean di-tuen maileguak ber-finanziatzeko. Enti-tate berari, orain egindakoak eta in-bertsio berriak fi-nanziatzeko 100 mi-lioi pezetako beste mailegu bat ere es-katu zaio.

XVI. Kultur Astea igaro da

Leitzako Kultur As-tea joan zaigu aurt-en-goan ere. Egun horietan izan genuen UEMAren eguna, Leitzako etxeen argazki erakusketa eta

lehiaketa, erakusketa ezberdinak... Bakea-ren inguruko mahai-ingurura ez ziren solas-kide guztiak azaldu. Errifaren sari bakarra

azaldu denez, hona he-men beste bi zenbaki sarituak: 435 eta 437. Norbaitek baldin badu jo dezala kultur talde-koengana.



EKIPAL

Komertziorako mogleen fabrika

Kalitate eta prezioaren arteko orekarik hoberena

- Edozein klasetako komertzioa duzula,
- ekipatzeko behar dituzun mogle guzti guztiak
- guk fabrikatuko dizkizugu

Lantegia, almazena eta erakusketa:

Bekolanda auzoa • 514225 • Faxa: 514271 • GOIZUETA





Baztango I. Mendi Ibilaldia ekainaren 12an egingen da

Hamar orduko ibilbide honetan 250 bat mendizale biltzea espero dute antolatzaileek

J. IGARABIDE

Baztango I. mendi ibilaldia burutuko da heldu den igandean, ekainak 12, Baztango mendigoizaleek antolatuta. Talde antolatzailearen kidea den David Ramosen erranetan "batez ere senderistetan pentsatu dugu eta martxa egingez gozatzen duen jendearengan. Ibilaldi hau egiteko, mesedegarria izanen da ongi prestatua egotea". Orotarat 10 orduko ibilaldia da eta hasiera batean, Saioa igo arte maldatsua izanen bada ere, gero goiti eta behiti ibiliko da. Partehartzearen aldetik, "200-250 mendizale artean, espero ditugu, Euskal Herriko mendi talde guzietara igorri dira idatzia eta hemengo jendeak parte hartzea espero dugu, noski". Mendizale bakoitzari 500 pezeta kobratuko zaio. Zerbait azpimarratzekotan, "Baztango mendien %40a, axale-



Arraiozko Jauregi-zaharra etxean egiten ari den moldatze lanengatik bortz milioiko laguntza jasoko du Xabier Oterok



David Ramos

tik bada eregun bakar batean ezagutzen duzula" erraten du David Ramosek.

6 milioi intereseko zenbait etxetan moldaketak egiteko

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta kultur sailak 6 milioi pezetako dirulaguntza eman du interes historiko-artistikoa duten zenbait etxetan egin diren moldaketa lanak ordaintzen laguntzeko.

Honela, Arraiozko Jauregi-zaharrean

egiten ari diren lanengatik 5 milioi eskuratuko ditu Xabier Otero jabeak. Dorretxe hau ondasun kulturala izendatu zuten duela bi urte. Erratzuko M^a Jesus Mortalenari 600.000 pezeta eta Elizondoko Carmen Bareari 425.000 peze-ta eman zaie.

ttipi-flash

Urritzate

inguruko herri lurrean, birlandaketa berri bat egiten 5.071.839 pezetako gastatuko dira. Proiektua Nafarroako Gobernuak mendi sailak idatzi du.

Xorroxin

irratia eta udalaren arteko konbenioa sinatu berria da. Honen bidez, Xorroxinek irratia lizentzia munizipala gestionatuko du hurrengo 10 urteetan.

Udalak

bertako euskara teknikari, kirol koordinatzaile eta kultur koordinatzaile izateko lanpostu deialdia luzatu du. Lanpostua finkoa izanen da eta oposizio-lehiaketa bidez emanen da

Oronozko

alkateak, Oronoz-Mugairiko bidegurutzean izan diren istripuak ikusirik bertan zerbait egitea eskatu du.

Bagordiko

errepide bazterrean eserlekuak paratuko dituzte, Elizondoko alkateak eskatuta.

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortziralerara 8etatik antzinera Larunbat eta jaiegunetan zabalik

© 452121 • LEKAROZ

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60



KOMUNIOAK

Kanpaina berri honetan, eskeintzen dizkizugun oroigarrien artean baduzu non aukeratu.

Hartu ordua:
ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

EGUN HAUNDI BATETARAKO
OROIGARRI ON BAT

Almandozko bestak asteazkenetik igandera

Larunbat goizean antzerkia izanen da txotxongiloekin eta gauez berriz, dantzaldia 'Basajaun' taldearekin

PABLO MENDIBURU

Asteazkena 1:

1etan suziriak. **Gauko 9etan** kalejira herrian barna. **10etan**, afaria 'Zoko-zahar' en. **12etan** Modestorekin dantzaldia.

Ortzeguna 2:

Besta Berri Eguna

7,30etan gosaria. **12etan** meza nagusia. Ondotik hameketakoa. **6,30etan** herritarren arteko pilota txapelketa. **9,30etan** kalderetea frontoian. **11etan** dantza txapelketa sariekin.

Arratsaldeaz eta gauez Modestorekin dantzaldia.

Ortzilerie 3:

7,30etan gosaria. **11etan** mus txapelketa herriko ostatueta. **2,30etan** zikiro-jatea Modesto akordeolaria-



Almandozko gazteek besta egiteko aukera izanen dute berriz ere

rekin.

Arratsaldeaz eta gauez 'Paraiso' taldea. **Larunbata 4:**

11etan haurrentzat jokoak eta gazteen arteko herri kirol saioa.

Ondotik antzerkia txotxongiloekin. **4etan** plater tiraketa harrobietan. Arratsaldeaz eta gauez 'Basajaun'.

Igandea 5:

12,30etan Baztango

dantzariak. **6,30etan** pilota partidua: Leiza-Apeztegia, Mikelperizena-Urrutiaren kontra. 8etatik 1,30etara dantzaldia 'Saraitxu' taldearekin.

ttipi-flash

❖ 1.500.000

pezeta eman zaio udalari 'Arte eta Kultura' programaren barnean

❖ Abenduko

euriteek sortutako kalteak 11 milioi pezetatan baloratu ditu udalak.

❖ Nafarroako

eskolarteko bertso paper lehiaketan Iñigo Plaza Martinez izan zen txapel-dun hirugarren mailan. Laugarren mailan berriz, Lorea Arburua bigarren gelditu zen.

❖ C.D. Baztaneri

181.000 pezetako dirulaguntza eman dio udalak futbol zelain moldaketak egin eta belar hazi berria botatzeko.

❖ Belateko

tunelaren Almandoz aldeko ahoa lekuz aldatuko dute. Honak 186 milioi gehituko dizkio hasierako aurrekontuari.

BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373



Galarza

JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK
Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

Egoki-ren banatzaile
baimendua



Sara

'Zazpiak Bat' taldeak Dantzari Ttiki egunean parte hartu zuen

Sarako Itzulian lauhun bat ibiltarik parte hartu zuten aroari gogor eginez

MIXEL ETA JACQUELINE

Miarritzeko Agilera kirol zelaian mila bor-tzehun haur bildu ziren Dantzari Ttiki eguna-ren karietarat. Egun paregabe hori Euskal Dantzarien Biltzarra elkarteari zor diogu eta hunek burutu ikerketei esker, ahanziak ziren dantzak berpizten dizkigu. Iparraldeko ho-goita hamar bat taldek parte hartu zuten eta hoi en artean gure her-ritik 'Zazpiak Bat' tal-dea bere berrogoita hamar bat haurrekin. Eskerrak gure herrian dantzaren alde urratsak egiten dituzten zuden-dari eta erakasle guziei. Segi hola.

Sarako Itzulia

Mendekostez iragan



Aurten Miarritzen bildu ziren 1.500 dantzari

Artxiboa

zen eta lauhun men-dizalek parte hartu zu-ten. Zorigaitzez ara-tsaldeko euri erauntsiek zombait ibilkari geldia-razi zituzten. Bertzeek aldiz, aroari gogor egi-nez bukatzen zuten be-

ren ibilaldia hezurreta-raino bustiak bainan pozik. Aurtengo ibilal-diak berezitasun batzuk bazituen (hala nola Larrunerat igotzea, Hirumugak, Zugarra-murdi iragaitea) eta ja-

kin dugunaz oso baikorra izan da. Ara-tsean denak biltzen zi-ren plazan oiha etxe baten pean eta giroa ezin hobea zen. Axuria mendi elkarreak men-dizaleen hitz-ordua

jada finkatu du eta hu-rrengo itzulia hemen-dik bi urteren buruan eginen da.

Haurren ibilaldia Bidarraien

Euskal mendizale federakundeak eta Ipa-rraldeko mendi taldeek antolatutrik, ekainaren 5ean iragan beharra da haurren mendi ibilaldi hau. Ateraldi hau 8 eta 13 urte arteko haurrei zuzendua dago eta ho-nako ibilbide hau burutu beharko dute: Artzamendi - Itsusi - Harpeko Saindua. Sa-ratar gazteak ere bertan izanen dira.

Xehetasun gehiagoren berri izaiteko eta izan emaitak honako tphone. haue tan: 59377134- 59932785.

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel eta Kallin
Guendiaia

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



FOTO MENA
ELIZONDO

Ezkontzetako erreportaiak
argazkiak eta bideoa

MARKOAK eta MOLDURAK

... Eta orain, **DONEZTEBEn** ere ...

Tfnoa.: 58 01 55 • Santiago 40 • ELIZONDO
Tfnoa.: 45 08 25 • Nagusia 4 • DONEZTEBE

Zugarramurdiko
GAU-PASAI...



Euskal kondoia edo kapota

eduki beti esku har
ziur, hoberena dela



Bestetako errifaren sari nagusiak kanpora gan dira aurten

Bertzalde, kurtsoari bukaera ona emateko bidaiak egin dituzte azken asteotan eskolako haurrek

ALIZIA OLAIZOLA

Sari nagusia, aste bateko bidaia bi lagunendako Torremolino-sera edo bidaiak balio duen dirua Arretxea bentan saldu da eta biazante bati tokatu zaio. Bigarren saria (4 afari herriko jatetxe batean) Lapitxuri bentan saldu da eta Ainhoako bati tokatu zaio. Hirugarren saria 'Kaja Sorpresa' haundi bat, 8990 zenbakiari tokatu zaio, Patxi Bentan saldua. Jabea nor den ez da ezagutzen oraindik.

Bidaiak

Kurtsoari bukaera ona emateko eskolako



Leorlas auzoa

Artxiibo Argazkia

haurrek bidaiak egin dituzte azken asteotan.

Ttikienak Hondarribian egon ziren hiru

egun pasatzen eta laugarren mailatik zortzi-

garrenarainokoak Palma de Mallorcan izan dira, 5 egun ederki pasatuz, hondartzarat joanez eta tokiak bisitatuz. Ikasturtea bukatzeko modu egokia da, duikabe.

Lehen jaunartzeak

Maiatzaren 29an ospatu ziren jaunartzeak Urdazubin.

Goizeko 11,30etan Don Javier Apezak ospatu zuen meza nagusia. Aurtengoan, lau haur ziren lehengo jaunartzea egin zutenak; Mattin Villares, Ane Huarte, Veronica eta Agustin Tacón.




Lanerako tresnak ebatsi dituzte zenbait obretatik

1960tik 1967ra bitartean jaiotako Sara, Urdazubi eta Zugarramurdiko neska-mutilen kinto besta ekainaren 4ean ospatuko da

KORO ETA MARGARI

Berriz ere lapurkei buruz aritu behar dugu. Frontoneko obran ari diren arginei foko bat eta kaballete batzuk gan den asteko gau batez desagertu zitzaizkien. Handik bi egunera, Titino eta Begoñak egiten ari diren etxean paratu behar zuten tarima guztia ereman zuten.

Jendea hasia da afera huni bueltak ematen. Ez dire lapur "ofizialak" ez dutelako dirurik ebasten, laneko tresnak edo materialak



Frontoneko obratik foko bat eta kaballete batzuk ereman dituzte

baizik. Bi lapurketak bentetako bidean ko-

katurik izanez, zerbait ikusi beharko du

muga edekia izateak ematen duen erresta-

sunarekin?

Kinto besta

Berri txar hau arintzeko, Zugarramurdi, Sara, eta Urdazubiko 1960tik 1967 urtera arteko kintoek ekainaren 4ean Zugarramurdiko 'Posadan' kinto-besta ospatuko dute. Izen ematea 1a baino lehen eta 1.000 pezeta utziz jatetxe berean izanen da. Kintoak ez zaretenok, badakizue afal-ondotik giroederra muntatzen dela eta Joxe Angelen musikarekin gustura pasatzeko aukera izanen duzuela.

EZKONTZAK

Jesus M^a Martiarena Sein eta **Nerea Aduriz Petrikorena**, Elgorriaga eta Errenterikoa, maiatzaren 7an.

Jesus Antonio Remuñan Peciña eta **M^a Jesus Redondo Salgado**, Errioxa eta Elizondokoa, maiatzaren 23an.

Patxi Mugika Zubillaga eta **Belen Arribillaga Goikoetxea**, Lesaka eta Berakoa, apirilaren 16an.

Francisco Javier Etxenike Urroz eta **Laura Iantzi Mitxelena**, Oronoz eta Lesakakoa, maiatzaren 14an.

JAIO TZAK

Daniel Pio Garcia Otxandorena, Eratsungoa, apirilaren 6an.

Estitxu Otermin Mariñelarena, Leitzakoa, maiatzaren 6an.

Iraitz Astiz Barquilla, Leitzakoa, maiatzaren 10ean.

Josune Gerra Baraibar, Leitzakoa, maiatzaren 10ean.

Aimar Zugarramurdi Narbarte, Goizuetakoa, maiatzaren 9an.

Leire Ramos Iraola, Berroetako, maiatzaren 2an.

Salvador Arotzarena Eraso, Elizondokoa, apirilaren 29an.

Begoña Merino Arretxea, Lesakakoa, maiatzaren 10ean.

Kattalin Fagoaga Telletxea, Lesakakoa, maiatzaren 15ean.

Irene Martinez Garate, Berakoa, maiatzaren 21ean.

HERIOTZAK

Antonio Irigoien Mihura, Erratzukoa, maiatzaren 5ean, 63 urte.

Angela Virto Izquierdo, Leitzakoa, maiatzaren 18an, 79 urte.

Dionisio Apezetxea Arribillaga, Goizuetakoa, maiatzaren 23an, 68 urte.

Aurea Valencia Pezonaga, Elizondon, maiatzaren 14an, 83 urte.

Juana Juliana Arizaleta Azkarra, Azpilkuetakoa, maiatzaren 18an, 72 urte.

Josefa Borrás Bort, Elizondon, maiatzaren 20an, 91 urte.

Eugenia Diaz Cuesta, Elizondon, maiatzaren 23an, 86 urte.

Teresa Durruty Erdosio, Etxalarakoa, maiatzaren 18an, 82 urte.

Ramona Mikelarena Baleztena, Aresokoa, martxoaren 25ean, 76 urte.

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



INGELES IKASTAROA UZTAILAN

Bertze urtetan bezala, aurtan ere, ingeles ikastaroa uztailaren 4etik 29ra goizez 9,15etatik 13,45 orduetara irakasle "natiboekin".
Apuntatzeko deitu 592006 Tfnoa

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak088/061

Osasun Zentruak

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako ospitalea ... 102100

SSko urgentzi

zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea614600

Gipuzkoako ospitala ... 460299

Erresidentzia453800

Anbulatorioak

Irun630264/621106

Anbulantziak

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka

(larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe

(larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe637404

Elizondo580924

Lesaka637404

Suhiltzaileak

Oronotz-Mugaire592255

Garraioak

Bidasotarra631150

Baztanesa580129

Leitzarar515018

Aberiak:

Iberduero450335/450336



'Nafarroako Aretzea' Kalitate Izendapena haragitako behien aretzeentzat

'Nafarroako Aretzearen' Kalitate Izendapena erregulatzen duen batzordeak, informazio bilerak burutzen ari ditu ganaduzaleekin. Elizondon, errate baterako, ekainaren 8an izanen da Balleko Etxean arratseko 9etan. Kalitate izendapen honetara bakarrik haragitako behien aretzak biltzen ahal dira, eta inola ere ez esne-behienak.

Aretzearen kalitatea kontrolatzeko, sanea-

mentu kanpaina ofizialak bete beharko dira eta hazteko ematen zaion bazka ere naturala beharko du izan. Hiltzeko urte bat inguru beharko dute izan eta bitarte horretan, hazkuntza prozesuaren segimendua egingen zaie.

Guzi honekin aretze haragiaren kalitatea eta prezioa hobetu nahi dira kanpotik etortzen den aretze haragiaren aitzinean, erosleari zein den zein jakineraziz.

Eskolaz kanpoko ekitaldietarako dirulaguntzak

Guztira 1,8 milioi pezeta eman zaizkie zonako ikastetxeei, eskolaz kanpoko ekitaldietarako. Horra zenbatekoak banan bana: Almandoz 20.600 Pta; Amaiur 49.100 Pta; Arantza 63.500 Pta; Areso 55.400 Pta; Arizkun 49.300 Pta; Azpi-lkueta 37.600 Pta; Bera 'Rikardo Baroja' 142.000 Pta; Bera 'Toki Ona Institutua' 223.300 Pta; Donez-

tebe 164.400 Pta; Eratsun 48.900 Pta; Etxalar 59.300 Pta; Ezkurra 45.000 Pta; Igantzi 56.000 Pta; Irurita 48.000 Pta; Ituren 51.200 Pta; Legasa 52.800 Pta; Leitzako Eskola 211.200 Pta; Leitzako Institutua 60.100 Pta; Lekaroz 206.300 Pta; NARBART 73.400 Pta; Oronoz 20.600 Pta; Saldias 46.800 Pta; Sunbilla 64.800 Pta; Ziga 16.500 Pta.

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



**ERRO
BIDAIK**

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUNA KALEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRUN

BIDAI
AGENTZIA

G.A.T. 2.015

PELUAGA SINTESIS



- OSAGARRIAK
- BOLTZOAK
- PAINUELOAK
- BITXIAK
- ZAPELAK

GAURKO EMAKUMEARENTZAKO MODA

Colon Pasealekua 7 • ☎ 943-622816 • IRUN

640 kiloko mutilen eta 520 kiloko nesken sokatira finala larunbat honetan Elizondon

Lesaka eta Amaiur arteko norgehiagoka ikusgarria espero da mutiletan eta Berriozarko neskak dira faboritoak

Larunbat honetan burutuko dira Elizondon Nafarroako sokatira txapelketako finalak, emakumezkoen 520 kiloko kategorian eta gizonezkoen 640 kiloko kategorian.

Emakumezkoen kategorian, Berriozarko neskak izanen dira faboritoak, momentuz ez baitute tiraldi bakar bat ere galdu kanporaketetan. Beraiekin batera, Etxauriko Arana eta Larraun arituko dira.

Mutiletan berriaz, Amaiur eta Lesaka izanen dira faborito nagusiak. Orain arte Amaiurrek erakutsitako nagusitasuna - Euskalerriko txapela irabazi zuela gogoratu behar da-, azkeneko kanporaketan bukatu zen. Lesakarek tiraldi



Sokatira saio aunitz izanen ditugu asteotan

Arg: Artixiboa

guziak irabazi zituzten Lekunberrin. Bigarren Amaiur gelditu zen, hirugarren Basaburua, laugarren Larraun, bostgarren Araiz Bete-lu eta azkena Berriozarko.

Bertzalde, asteburu honetan egitekoa zen 640 kiloko mutilen bigarren mailako finala Goizuetan. Bertan arituzekoak ziren Areso,

Goizueta, Berriozarko, Etxauriko Arana, Uztama eta Sakana. Larraun, Berriozarko eta Berako neskak ere 480 kilotan ere arituzekoak ziren.

Bote pronto

Doneztebeko

A eta B taldeak dira nagusi Baztan-Errekako Laxoa txapelketan. Partida bakar bat ere ez dute galdu oraindik eta beraien ondotik, Oitz A eta B dituzte bi multzoetan. Ikuslegoa ere gero eta biltzen ari da partiduak ikustera.

Baztango

I. Mendi ibilaldia burutuko da ekainaren 12an. Hamar orduko ibilaldia bete beharko dute parte-hartzaileek.

Bortzirietako

Futbito Txapelketa ekainean burutuko da Lesakan.

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA © 630735 • IRUN © (943) 622305



❖ Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55
BERA

TRAFFIC

muñeca
de trapo

**GIZONEZKOEN
MODA**

**EMAKUMEZKOEN
MODA**

BLAK, IRUNgo LUIS MARIANON

GAIA
LUR - BIZI

OSASUN DENDA
BELARRAK
DIETETIKA INTEGRALA
EDERGAI NATURALAK
EGUZKITARAKO KREMAK

NATUROPATA • IRIDIOLOGO OROKORRAK:

- Kiropraxia - Masajea - Kinesologia - Homopatía - Neuralterapia - Bach loreak.
- Pixu kontrol profesionala urte guztian

Bittiria, 6 - LESAKA - TEL. 637410

Futbol denboraldia bukatu da

Baztan, Lesakako Beti Gazte, Leitzako Aurrera eta Berako Gure Txokoako neskak bikain aritu dira, mutilak berriz erdipurdi

Futbol denboraldia bukatu berria dute eskualdeko futbol taldeek. Orokorrean denboraldi ona izan da gehientzat, nahiz eta Berako Gure Txokoak sufritu behar izan duen Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailari eusteko. Maila berean aritu diren Beti Gazteko lesakarre berriz denboraldi bikaina burutu dute eta mailaz igotzea lortu dute. Heldu den urtean beraz, Preferentearituko dira.

Nafarroako zelaie-tan ari diren bi taldeei dagokienez bikain ari-



Baztan taldea arras ongi moldatu da hirugarren mailan

Artxiboa

tu dira. Baztan taldeak erantzun bikaina eman

du hirugarren mailan. Denboraldi honetan igo

ondotik, gibekeko postuetan ibiliko zirela uste

zen, baina ederki aritu dira eta azkenean juxtu-juxtuan ez dira sartu Bigarren B mailara igotzeko fasean. Azkenean bortzgarren postuan gelditu dira.

Leitzako Aurrera ere ongi aritu da Erregionaleko lehen mailan. Igoera fasean sartzea ere lortu zuen, baina azkenean ezin izan du Preferentera igo.

Azkenik, aipagarria da Gure Txokoako nesken futbol taldeak egindako denboraldia, ligako txapeldunak suertatu baitziren. Kopan ere nahiko ongi ibili dira.

ETXALAR • UDABERRIKO KULTUR EGUNAK

EKAINAK 10

HITZALDIAK ETA DIAPOSITIBAK

Gaia: **nekazaritza ekologikoa**

Hizlaria: Jose Uranga (Nafarroako BIOLUR elkarte)

EKAINAK 12

GASNA FERIA EGUNA

10.30etan III. Altxata Gasna Lehiaketa

11etan Gasna feria

Inguruko produktuen salmenta

Zonaldeko artisauen erakusketa

12etan Bertsolariak

13.30etan Sari banaketa

14etan Bazkari herrikoia eta Trikitilariak

15etan Gasna sarituen enkantea

15.30etan Dantzaldia KAXIANO Akordiolariarekin

EKAINAK 19

HAURREN EGUNA

ESKULAN ERAKUSKETA

IPUIN LEHIAKETA

BAZKARIA

ORTZEGUN GIZENEKO ANTZERKIAK

MUSIKA

Altxata elkarte

AGENDA EGUNEZ EGUN

GASNA FERIA

ETXALAR

Ekainaren 12an
Lehenik Baztan, Bortzi-
riak, Leitzaldea eta
Malerrekako Gasna
Lehiaketa eta egun
osoan zehar bertako
produktuen Feria
Eguna; gasnak, eztia,
patea, nafar ardoa,
etxeko kontserbak...
denetarik erosi ahal
izanen da. Antolatzaile-
lea Alixata elkarte.

KONTZERTUAK

ERRATZU

Ekainaren 11n
Potato, Inquilino
Comunista eta Gutar-
riko Bat.'. Antolatzaile-
lea: Xorroxin Irratia.

HITZALDIAK

ELIZONDO

Ekainaren 8an
Balleko Etxean 9etan
Nafarroako Aretzearen
Kaliitatezko Izendape-
naz.

ETXALAR

Ekainaren 10ean
Nekazaritza ekolo-
gikoz arituko da
Biolureko Jose Uranga.

GUARDIAKO BOTIKAK

Maiatzaren 30etik
Ekainaren 5era
Bera, Ituren, Elizondo
(J. Iturralde).

Ekainaren 6tik
12ra Arantza, Nar-
barte, Irurita, Urdazubi.
Ekainaren 13tik
19ra Etxalar, Donezte-
be, Elizondo (F.
lezaun).

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Arroz entsalada

Osagaiak

- 400 gr. arroz • ilarrak • atuna
- tortilla frantsesa • jamon york
- oilasko petxuga • entsala-
darako tomateak

Prestatzeko manera

Ontzi batean berotzen jarri ura
gatz pixko batekin. Irakitten

hasten denean arroza
botako dugu. Hortik 20
bat minutura arroza
uretik ateri espumade-
ra batekin eta hozten
utzi ontzil batean.

Arroza ongi hoztu denean, gai-
nerako osagai guztiak, entsala-
darako tomateak izan ezik, gehitu
behar zaizkio. Hori bai, guztiak
puxka tikitari xehetuak egon
behar dute. Ondotik, entsala-



Justa
OSTOLAZA
'Txoko
Etxandi'
• Ituren •

darako tomateak paratu eski-
netan apaintzeko.
Azkenean olio zupina egiten
dugu eta norberaren gustura
paratzen dugu entsalada.
On egin!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoak):
5.700 pzt.
- Zerri gizena (95-100): 177
pzt./kilo
- Zerramak: 100-110 pzt./
kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta./kg. Kanakal
- Extra 590
- 1.koa 570
- 2.koa 550

Urruxak: Pzta./Kg. Kanakal
Extra 610
1.koa 580
2.koa 550
Oharra: Prezio hauek 300-340
Kg. kanalean dauzkaten idixko
eta 200-250 Kg. dituzten
urruxentzako.

• Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 23.000 eta
idixkoak 38.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 38.000 eta
idixkoak 48.000 pzt.

• Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 430 Pzta./
Kg. Kanakal. Behi gorri ona: 480
Pzta./Kg. Kanakal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK, KIVI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza
• Bertako sagarrondoak 930.
• Udareondoak 930 pta.
• Gereziondoak 1.050 pta.



❖ BARAZKIAK ❖

- Piper txorizero zientoa 800.
- Piper morro zientoa 800.
- Piperminak zientoa 600.
- Valentziar tipula zient. 800.
- Letxuga zientoa 400 pta.
- Azelga zientoa 400 pta.
- Pepino sorta 25 pta.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN

Tfnoa: 45 04 91



KATTU


OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



LIBURU ERRESEINAK



Gizona bere bakardadean

Iruña, Pamiela, 1993
(Ilargia kondagintza; 10)

Bernardo Atxaga-ren azkeneko nobela dugu hau.

Lekua: Bartzelona ondo-ko hotel batean.

Denbora: Bortz egun badi-
ra ere mendeak balira bezala pisatzen dute.

Istoria: Carlos izeneko pertsonaiaren bizitza. Gizon bakarti hau jendezka haren erresuman ez sar-
tzeagatik sartu zen orga-
nizazio armatu batean
adoleszentzia bukatu on-
doren. Bere ikastetxeko
kideak kanpamenduetara
joaten ziren bitartean -
fraideekin, noski-, be-
raiek -itxuraz ikastetxe-
ko bizimodua egin arren
beste erresuma aparteko
hartan zeuden lau edo
bortz lagunek- tiro

praktikak egiten zituzten
mendian edo Sabinoren
klaseetara joaten ziren
hipodromo bateko bule-
goan egin behar zuten
atrakoa prestatzearen.
Jakina, berezitasun horrek
hegoak jartzen zizkien
beraien oin eta bihotzei...
Urteak pasatu dira eta, or-
ganizazio armatuko kide
haiek, hotel baten jabeak
dira. Espainiako futbol
mundiala jokatzeko ari da
eta Poloniako selekzioko
jokalariak daude hotelean.
Carlosek berriz, organi-
zazio armatuko bi kide,
Jon eta Jone, gordetzen
ditu okindegian, bere
txoko sekretuan...

Liburuak eskuratzeko Bera,
Doneztebe, Elizondo, Leit-
za eta Lesakako liburutegietara joaten ahal zarete.



Perrauten Ipuinak

Iruña, Pamiela, 1993
(Tamaina itikia; 17)

Charles Perrault (1628-
1703), Frantziako idazle
famatuaren ipuin bilduma
honi euskaraz idatzia iza-
teak balioa ematen dio.
Liburu honek adierazten
digu betidanik aditu eta
leitu ditugun ipuin ma-
gikoak bizirik daudela.
Moraleja izanik denont-
zat diren kontakizunak
irakurtzen ahal ditugu:
Txanogorritxu, Mari
Errauskin, Katu botadu-
na, Edurnetxo, Loti Ede-
rra... Prosaz idatzitako
zortzi ipuin eta bertsoan
bertze bi 1862. urtean
Gustave Doren-ek egin-
dako iridiek aurkeztutako
liburu honek antzinako
krezio hau berriro egiten
du.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

ALMANDOZ

► **Ekainaren 1tik 5era.** Ikus xeheta-
sunak 21. orrialdean.

ALTZATE

► **Ekainaren 4 eta 5ean.** Ikus xeheta-
sunak 9. orrialdean.

ANTZERKIAK

BERA

► **Ekainaren 4ean**
arratsaldeko 8etan
Kultur Etxean 'Altza-
teko Jaun' antzerki saioa
Lamixine-1 taldearen
eskutik.

► **Ekainaren 11n**
arratsaldeko 8,30etan
Kultur Etxean 'Taum-
Taum' antzerki
taldearen lana.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Maiatzaren 28tik**
ekainaren 30era
Angel Urangaren
margo erakusketa
Arizkunenea Kultur
Etxean, 7etatik 9etara

BERTIZ

► **Uztailaren 3a**
bitarte 'Antzinako
emakumeak' argazki
erakusketa jauregiko
behe solairuan.
Goizeko 10,30etatik
1,30etara eta arratsal-
deko 4etatik 7etara.

MAGNETISTA - NATUROPATA ZURE BEGIAK ZAINTZEN DITU

✂ BISTAREN ERREKUPERAZIOA

- Begi alferak, estrabismoa, kataratak, retinosia, begietako neuritisa, begietako infekzioak, konjuntibitisa, miopia, hipermetropia.

✂ REHABILITAZIOA

- Artrosia, Artritis erreumatoidea, bihurturak, lunbalgiak, zerbikalgiak, psoriasis, diabetea, azaleko alergia, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara (Ordua eskatu)
San Marcial 7 - 4. - IRUN ☎ (943) 62 30 55

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

LEGASA. Pisua alkilatzeke. Kalefakzioa eta trasteroa. ☎ 450357.

Baserria erosiko nuke, bide asfaltatuarekin, eskura ordainduz ☎ 451518.

SUNBILLA. Pisua alokatzeko frontoiaren ondoan. ☎ 450916 (iluna-barretan).

IBILGAILUAK

Ford Fiesta XR2, NA-P matrikulakoa, salgai. Hiru hilabeteko garantia. ☎ 637160.

Renault 12 familiarra, SS-8312-O matrikuladuna salgai, 100.000 pezetan. ☎ 581212.

Ford Sierra 2.0i, NA-T matrikulakoa salgai. Hiru hilabeteko garantia. ☎ 637160.

Citroen Visa Stilo TRS 1.4, NA-P matrikulakoa salgai. Egoera onean. ☎ 599176 (eguerditan).

DENETARIK

Zura zaharrak salgai. Kapirioak eta soliboak. ☎ 604624.

Donezteben labandaria eta tintoreria konjunto osoa saltzen dut, estrenatu gabea. Prezio negoziagarria. ☎ 451518.

Moble zaharrak erosiko nituzke. Berdin da pipiak baldin baditu. Eskura ordaintzen dut. ☎ 451518.

LANA

Bortzirietako Euskaltegiak irakasle bat behar du heldu den ikasturterako. Baldintzak: Bortzirietakoa izatea eta EGA-duna. ☎ 637796.

24 urteko bi neska orduka lan egiteko prest daude. ☎ 637734 (Lourdes).

AZIENDAK

Txakurkumeak salgai. 2 hilabete dituzte eta txertatuak daude. Ama sabueso italiarra eta aita hemengo sabuesoa. ☎ 510204.

Ardi txakurrak salgai. ☎ 604624.

Collie edo Lassie arrazako zakurkumeak, bakunatuak salgai. Ar eta emeak. Kolore marroi eta txuria. 25.000 pezetatan. ☎ 451518.

Zakur sabuesoa salgai, 4 urtekoa, erbi eta azeri ehizirako. ☎ 450907.

Pekines arrazako zakurra salgai, 2 hilabetekoa eta ile motza. ☎ 514040.

AGURRAK

Leitzako Tom Cruisse (H.B.A.). Ni zutaz maite-mindurik nago. Beti maitatuko zaitut zalantzarik gabe. Muxu bat (A.O.C.).

Aresoko Juan Belaunzaran (maiatzak 11), Pedro bere semea (maiatzak 16) eta Carmen Onsalo emaztea (maiatzak 22) zorionak, Panaderiko familiaren partez.

Doneztebeko Txuseri zorionak zure 22. urtebetetzean. A.M.

Aresoko Garbiñe Saizar zorionak zure urtebetetzeagatik (maiatzak 11). Unai Onsalo.

Aresoko Uxue Goikoetxeari zorionak zure 5. urtebetetzean (maiatzak 27). Bere lagun Naiararen partetik.

Elizondoko Itziar Iri-sarriri. Zorionak maiatzaren 23an. Ea noiz gonbidatzen duzun txanpainera. Urdazubitik Aliziak.

Berako Nuria del Rio. oso ona zaude. Ikerren partez.

Arantzako Mari Joseri: Zahartzen ari garela, ee! Ea noiz ospatzen dugun. Pello.

Sunbillako Iñakiri: barka ezazu hainbertze denboran ez idazteagatik bainan ez zaituz ahortzi. Igantzitik.

Amairuko belarri haundiari. Ikustekoa da gero, ze rrolloa duzun. Zure bi sufidak.

Goizuetako Ana eta Mirreni: Gero eta sinpatika-goak zaudete. Lesakan ikusiko gara. Trogloditak.

Zugarramurdiko Germanentzat. Akelarreko gaupasan ikusiko diagu zer den Realf hori. Arizkungo A. eta M.


Ester eta Ainhoari: espero dugu hemendik aitzinera gehiagotan elkartuko garela beste parranda batzuk egiteko. Zuggarramurdin adibidez.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*

Centro Comercial



**LUIS
MARIANO**

Irun



E Z K A L O

JOSE ANTONIO ELIZONDO Jauna • API 129

INFORMAZIOA: 45 15 18 Tfnoan. • DONEZTEBE

Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero

Etxe, Baserri, Borda, Pisu eta Bajerak erosten ditugu, eskura ordainduz.

DONEZTEBE

Pisua salgai. Bi terraza, sukalde ekipatua, egongela tximinia eta miradorearekin, 3 logela, ganbara... Denak kanpo aldera ematen du eta mobleztatua. **8.300.000 Pta.** Negoziagarria.

IRURITA

'Hostal Baztan'en ondoan, pisua, garagea eta 2 terraza 40 m²koak salgai. Aukera paregabea.

IRURITA

Farmazia ondoan 140 m²ko pisua eta 18 m²ko ganbara salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela tximiniarekin, sukalde ekipatua. Aukera paregabea.

IRURITA

Pisuak eta luxuzko apartamentuak **6.500.000 Pta.** aitzinera.

ELIZONDO

80 m² erabilgarriko pisua salgai. **6.300.000 Pta.** Negoziagarria.

ELIZONDO

Pisua salgai Saskaitz Plazan. Aukera paregabea.

MONTEAGUDO

Tuteratik 6 km.tara etxea salgai. 30 m²ko terraza. **3.800.000 Pta.** Eguraldiarengatik egokia.

DONEZTEBE

Luxuzko apartamentua. **8.500.000 Pta.**

DONEZTEBE

Bajera komertziala eta baratzea 'Torroba' etxearen parean. Bulegoak egiteko primerakoa.

NARBARTE

Pisu mobleztatua alkitatzen dut. **35.000 Pta.** hilabetean.

LEITZA

Borda lur eremuarekin. Bidea eta ura. Leku eguzkitsua. Asteburuak pasatzeko primerakoa.

ARANO

Borda lur eremuarekin. Bidea, ura eta argindarra sartzeko posibilitatearekin.

OIEREGI

Borda 3.400 m²ko lur eremuarekin. Meditaziorako egokia.

AZPILKUETA

Borda 8.000 m²ko lur eremuarekin. Ura, bidea eta argindarra sartzeko posibilitatearekin.

SESMA

Lizarratik 20 km.tara etxea salgai. Aukera ona.

GASNA FERIA EGUNA

Etxalarren, ekainaren 12an



ZATOZ ETXALARRERA

Noiz: Ekainaren 12an (igandea) goizeko 11etatik eguerdiko 2ak arte
Non: Etxalarko Plazan



NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

BERTAKO PRODUKTUAK EGILEEI ZUZENEAN EROSTEKO AUKERA

INGURUKO GASNATEGI ETA BASERRIKO ARDI GASNEN ESKAINTZA PAREGABEA

- TALOAK
- EZTIA
- PATEA
- NAFARROAKO ARDOA
- PATXARANA
- KAFESNEKO TOFE GOXOKIAK
- LIKORRAK
- ETXEKO KONTSERBAK
- LOREAK

ZONALDEKO ARTISAUEN ERAKUSKETA

- KAIKUAK
- GORUETA
- EHUNGINTZA
- BOLILLOAK
- LARRUGINTZA
- HARGINTZA
- SASKIGINTZA



Euskadiko Kutxan, mailek hegaz egiten dute.

Urtero, Euskadiko Kutxak Maleta-Joku ederra oparitzen du nomina helbideratzeagatik. Eta urtero, gauza bera: hegaz egiten dute berehala. Azkar ibili! Zatoz gaur bertan Euskadiko Kutxara. Helbideratu zure nomina eta eramazu Maleta-Joku hau. Harro baino harroago erakutsiko dituzu zure hurrengo bidaian!

Nomina
Helbideraketa


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

EGUR - LANAK

ZURGINDEGIA

- SUKALDE MOBLEAK
- ATE ARRUNTAK eta SEGURTASUNEZKOAK
- ESKAILERAK, SOLAIRUARTEAK eta TEILATUAK
- OHIZKO TARIMAK eta FLOTANTEAK
- MOBLEAK NEURRIRA
- PARETAN SARTZEKO ARMARIOAK
- SUKALDE eta ELKARTEETARAKO MAHAIK
- KALITATE ONENeko EGURREZKO LEIHOAK
- LEIHO MIXTOAK:
-Aluminioa + egurra (haritza edo sapely)



ERAKUSKETA:

Altzate karrika, **BERA** • Tfnoa: 948-630117 (Arratsaldez bakarrik)